

TRANSZENDENTZIAN HEZTEA

“La Salle ikastetxeen berezko izaera” dokumentuko balore-heziketarako proposamenean, hauxe jasotzen da:

F – Transzendentziara irekitzen du (10. or.)

Salletar eskolak proposatu, gonbidatu eta lagundu egiten dio Hezkuntza Elkarteari bere dimentsio transzendentea aurkitzen. Kristau eskolaenez, esperientzia fededuna bizitzea du ahalbidetzen, kristau konpromisoa Elizaren baitan bizitzean lagunduz, Ebanjelioan eta Nazareteko Jesusen balioetan oinarrituta. Hau guztiau hazkunde pertsonalerako ibilbideen bitartez egingo da elkartearen altzoan.

Ikasleek, gonbitetan eta norberaren hautapenekiko errespetuan oinarrituta, Hitzaren entzun eta onartzeko aukerak aurkitzen dituzte, Ebanjelioaren balioak bereganatzeko, helduen laguntasunarekin ibilbide pertsonala egiteko, fedea eta konpromisoa ospatzeko.

Zergatik galdetzen diogu gure buruari transzendentziari buruz? Sekularizazioarako joera handitzen ari den garai honetan, Jainkoari buruz hitz egiteko bide bat bilatzen al dugu, hura izendatu gabe? Estrategia pastoralak da, edo berariazko iragarpen argiaren aurrean sentitzen dugun beldurra da? Onargarria da transzendentzia mundu sekularizatuan?

Galdera horien erantzuna edozein izanik ere, transzendentziagatik galdetzea garena baino gehiago edo adierazten duguna baino gehiago izatera deitutako izakiak garelako onartzea da, gure burua gaindi dezakegun izakiak, etengabe gure identitatea edo nortasuna bilatzen ari garenak; jarrera irekia dugu, gure eguneroko ekintzek eta bizipenek betetzen ez duten irrikaren eta betetasun-nahiaren aurrean. Gure FEDETIK, transzendentzia da gure historiaren, gure existentziaren, gure bizitzaren oinarria eta euskarria...: JAINKOA.

1.- KONTZEPTURA HURBILTzea (transzendentzia, transzendentea)

1.1 Transzendentziaz hitz egiten dugunean izan dezakegun **lehenengo inpresioa** nolabait ere errealitatetik kanpo kokatzen garelako da, eta termino horrek gure ezagutzak eta esperientziak gaintzen dituela.

Hiztegira jotzen badugu, honako adiera hau aurkituko dugu:

Transzendentzia: *Muga naturaletatik harantzago eta haietatik bereizita dagoena.*

Hasiera batean, definizio horretatik ondoriozta dezakegu transzendentzian hezteak ezinezko eta alferrikako zeregina dela. Baina gure bokazioa eta gure lanbidea pertsonak hezteak bada, ezin gara hasierako inpresio horretan gelditu.



BEGIRA EZAZU HARANTZAGO



1.2 Transzendentzia hitzaren lehenengo eta oinarrizko zentzuak **metafora espazial** bati egiten dio erreferentzia. Transzenditzeak (*trans*, harantzago, eta *scendere*, eskalatu) esparru batetik beste batera igarotzea esan nahi du, bien arteko muga gaindituz. Ikuspegi filosofikotik, transzendentziaren kontzeptuak honako ideia hau ere hartzen du barnean: **gainditzea** edo nagusitzea. Mendebaldeko tradizio filosofikoan, transzendentziak erreferentzia-puntutik «harantzago» joatea esan nahi du. Transzenditzeak «gailentzea» esan nahi du, esparru baten «barnealdetik» «kanpoaldera» igarotzea, muga edo itxiera gaindituz.

1.3 Hiponako Agustinek hauxe esan zuen *platonikoei* buruz: «Gorputz guztiak transzendentitu zituzten Jainkoa bilatzeko». **Transzendentzia, beraz, immanentziaren** kontrakoa da. Transzendentea immanentearen «gaintetik» dagoena da. Eta immanentzia, hain zuzen ere, errealitate jakin bat bere baitan itxita egotearen propietatea da, bere izate eta ekintza guztiak bere baitan agorten dituena. Beraz, transzendentzia immanentziaren uneetako bat da, eta une horri transzenditzeak dakarren gainditzea erantsi behar zaio. Hala, immanentea mundua da, esperientzian bizi duguna, eta transzendentea, berriz, ezagutzen dugun mundu horretatik kanpo zerbait badagoen galdetzea.

1.4 Transzendentziaren ideiak **mugimendu infinituaren** ideia ekartzen digu gogora, errealitate handiago baterantz eramaten gaituen irrika. Gehiago izateko nahiaren, gehiago maitatzeko nahiaren, geure burua osotasunean gauzatzeko nahiaren, inolako helmugetan edo mugetan ez gelditzeko nahiaren bidez adierazten da desira hori. Irrika horrek, berez, ez du frogatzen pertsonaren egarria erabat aseko duen beste mundurik dagoenik, baina ez du ukatzen ezta ere. Arrazoizkoa da zentzuz betetako erabateko transzendentzian sinestea, gizakiak bere irrika hori behin betiko aseko duen transzendentzian, hain zuzen. Horixe da, azken batean, lehen eta oraingo kristau-filosofiaren azken muina.

1.5 Gizakiari eta gure munduari buruzko jakin-nahizko begirada batek galdera asko sorrarazten ditu, eta galdera horien erantzunek galdera gehiago sorrarazten dituzte. Errealitatea ez da agortzen zientziarekin edo filosofiarekin. **Misterio hitza sortzen da egoera hori adierazteko**, aberastasun handia biltzen duelako, eta zenbat eta agerpen gehiago izan eta zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta sakonagoa dela jabetzen gara. Horregatik, nonahi sortzen dira galderak, eta interpelatzen uztea eta entzutea funtsezkoa da aurrera egiteko.

1.6 Transzendentziaren bilaketa meditazioaren eta otoitzaren bitartez **Jainkoarengana hurbiltzeko ahaleginarekin** lotu ohi da. Nolabait ere, transzendentziak izaki hilkorrek garela aitortzea inplikatzeko du, eta gorputzetik kanpo dagoen denboran eta espazioan irauteko bide bat badagoela onartzea.

1.7 Hauxe dio Françesc Torralbak: *Azaletik hondoraino bidaiatzea da hezteq; beste hitz batzuekin esanda, barnatasunaren aldeko apustua egitea da. Pertsona bat hezten*



BEGIRA EZAZU HARANTZAGO



dugunean, munduaren, bere buruaren eta historiaren ikuspegi sakona izatea lortu nahi izaten dugu. Ez diogu azaleko ikuspegi panoramikoak soilik eskaintzen; harantzago joan dadila nahi izaten dugu, hondoraino, gauzen esentzian eta, zehazki, bere baitan sartzeak sortzen duen egonezina senti dezan. Transzendentzia hitzak esanahi asko ditu, eta, tradizionalki konnotazio erlijioso hutsak dituen arren, erlijiotik kanpo ere esanahi aberatsa du.

AZKEN BATEAN:

TRANSZUDENTZIA GURE AURREAN DUGUN ERREALITATEAREN SAKONTASUNERANTZ ETA ZABALTASUNERANTZ IREKITZEA DA. HORRELA, TRANSZUDENTZIARAKO HEZTEA BEGIRADA DESBERDIN BAT HEZTEA DA, ERREALITATEK KANPOKO DIMENTSIO BAT AURKITZEKO GAI IZANGO DENA.

2.- GAURKO GIZARTEARI ETA KULTURARI ZUZENDUTAKO BEGIRADA

2.1 Komunikabideen eta teknologiaren gure gizartean, atzo merkaturatutakoak gaur irtenbide eraginkorragoa eta ekonomikoagoa duen merkatu batean, albistea iragarri eta berehala desfasetuta gelditzen den gizarte batean, ba al dago espaziorik eta tokirik transzendentziarako? Tarte zabala uzten didazue, zioen klasikoak... Horrela bizi nahi dugu errealitatea?

2.2 XXI. mendeko gizarte honetan, atsegina sortzen duenak soilik axola du. **Garrantzitsuena orainaz gozatzea da,** eta ez du merezi bizitza korapilatzea konponbiderik ez duten edo konpontzea lortuko dugun ez dakigun arazoak planteatuz. *Carpe diem* da mila modutara adierazitako leloa, batez ere gazteen aldetik eta berehala gozatzeko nahi hori asetzeko hobetu nahi dutenen aldetik.

2.3 Zertaz hitz egiten dute komunikabideek? Zer diote telebistan? Zer dago modan? Transzendentzia ez, behintzat; gogoeta egitea, barneratzea, itxarotea, misterioa, horiek guztiak ez daude modan.

2.4 Zer burtsatan kotizatzen dute transzendentziaren balioek? Bada transzendentziarekin espekulatzen duen merkaturen bat?

Begien bistakoa dena berresteko gogoetak luza daitezke, eta hitzaldiak biderkatu. Ez da erraza izan inoiz barnatasunarekin, berehalakoa gaitzetearekin eta zorionarekin (atzeratu egiten da, benetakoagoa izateko) lotzen ditugun bizitzaren maila horietan ibiltzea. Are gutxiago bizi garen garai hauetan. Hala ere, "La Salle Eskolaren" hezkuntza-konpromisoetako bat da hori.



BEGIRA EZAZU HARANTZAGO



3.- TRANSZENDENTZIAN HEZTEAK HAINBAT ESPARRU LANTZEA INPLIKATZEN DU

1.- “Ni”a eta “gu”a transzenditzea

Transzenditzea, hasiera batean, zugana eta besteengana irekitzea da. Mugimendu hori berezkoa du pertsonak, bere kontzientziaren esparrutik irtetea eta besteei irekitzean erazten eta aberasten baita. Transzendentzia, lehenengo zentzu horretan ulertuta, norberarengan pentsatzeko joera gainditzea da, norberaren interesak kalkulatzeko joera gainditzea. Gu baino handiagoa den osotasun bat badela ulertzen badugu, transzendentziaren balioa aurkituko dugu. Pertsona heldugabearen joera indibidualista eta egozentrikoa gainditzea eta besteen munduan barneratzea da. Hazteko ekintza bat da.

2.- Oraina transzenditzea

Bestalde, transzenditzea etorkizunari eta iraganari buruz galdetzea ere bada. Izaki historikoak gara, iragan batetik gatoz eta etorkizunera joan nahi dugu. Pertsona bat heztea pertsona horri bere izate historikoaz kontzientzia hartzen laguntzea ere bada.

Transzenditzea etorkizunaren ikuspegiari irekitzea da, hemen eta orainetik harantzago joatea, eta izan daitekeena aurreratzea. Gogoratzea ere bada, atzera begiratzea, zer egin dugun eta ibilbidea nolakoa izan den balioesteko eta dagozkion lezioak ikasteko.

Transzendentziaren zentzua heztea ikasleari bere iraganaren kontzientzia hartzen laguntzea da, bera partaide den historia kolektiboaz jabetzen laguntzea; baina, halaber, etorkizuna oraindik idatzi gabe dagoela ikusaraztea ere bada, eta hein handian bere esku dagoela adieraztea.

3.- Balio materialak transzenditzea

Materialismoak eta kontsumismoak sakonki markatutako testuinguruetan, balio espiritualak aldarrikatu behar dira, pertsona unibertso berri baten aurrean jartzen duten balioak. Erreferentzien horizonteak dira balioak, eta poliki-poliki ezagutu eta maitatu egin ditzakegu, gure ibilbidearen mugarritzat har ditzakegu.

Balio materialak transzenditzeak ez du esan nahi gauzek, objektuek, gorputzak edo diruak duten balioaz ahaztu behar dugunik. Gauzen ordena horretatik harantzago beste konstelazio bat aurkitzeko aukera dugula esan nahi du, eta hori ere landu eta maitatu dezakegula.

Zenbait balio ez dira materialak, hala nola isiltasuna, behaketa, solasa, paseoa, meditazioa, baina funtsezkoak dira pertsonaren oreka emozional eta mentalerako.



BEGIRA EZAZU HARANTZAGO



4.- Mundu honetako bizitza transzenditzea

Transzenditzea heriotzaz haraindi zer dagoen galdetzea da. Zer espero dezaket? Hezkuntza-erakundeen esparruan galdera hori txertatzea politikoki zuzena ez den arren, edozein hezkuntza-zereginetik, barren-barreneraino joan nahi badu, ezin du galdera hori alde batera utzi, ezin du heriotzaren gaia saihestu.

Existentzia mugatua dela onartzen duenean, ikasleak bere bizitzaren zentzuari buruz galdetuko dio bere buruari. Beraz, galdera erosoak gainditu behar dira.

5.- Irririkak transzenditzea

Ez dugu heziketa emozionalaren aurka egin nahi, funtsezkoa baita pertsona eta pertsonaren gaitasun guztiak modu egokian garatzeko, baina senetik harantzago joan behar dugu. Hemen eta orain sentitzen dituen nahietatik harantzago joateko ahalmena du gizakiak, askatasunez hartutako konpromisoekin leial jokatzeko ahalmena.

Ez dago askatasunik norberaren burua kontrolatu gabe. Ez dago askatasunik gorputzasunetik sortzen den berehalako nahitik harantzago joateko ahalmenik gabe. Gorputza transzenditzeak ez du esan nahi gorputza ukatzea. Gorputza kontrolatzea eta nahi dugun norabidean eramatea esan nahi du, gorputzaren esklabo ez izatea, baizik eta gorputzean gertatzen den guztiaren jaun eta jabe izatea.

6.- Hutsalkeria transzenditzea

Transzenditzea hondora joatea da, gauzen muina aztertzea, periferian ez gelditzea, arazoan azalean ez gelditzea. Anekdotan gelditzeko joera dugu, gauzen barnean sartzen ez den begirada xumean gelditzeko joera.

Masen ikus-entzunezko kultura da hutsalkeriaren hedapen azkarraren eredu paradigmatico bat. Masa-kultura aurrez aurre dago zuzenean pentsatzea, sakontzea eta gogoeta egitea esan nahi duen guztiarekin.

Hutsalkeria transzenditzea edozein esperientzia erlijioso izateko baldintza da. Barneraino sartzeko ariketa egiten duenak soilik esperientzatzen du Jainkoaren Zu infinituaren bizipena. Ni-aren azalean ez dago esperientziarik, entretenimendurako, atseginarekin bilaketarako eta zentzumenen esperientzia atseginerako tokia baino ez dago.

7.- Jainkoaren irudiak transzenditzea

Transzenditzea Jainkoaren irudietatik harantzago joatea da, eta Jainkoa gure ideiak eta kontzeptuak baino harantzago dagoela jabetzea. Jainkoari buruz hitz egiteko hizkuntza sinbolikoa da, eta, aberatsa izan arren, mugak ere baditu. Eta badakigu Jainkoari buruz egiten ditugun adierazpenak asmo onenarekin egindako hurbilketak baino ez direla.



BEGIRA EZAZU HARANTZAGO



8.- Transzendentzia Jainkoarengan konfiantza izatea eta esker onekoak izatea da

Gure Kreatzailea eta Aita dela jakinda, gure beharrik izan gabe maitasunez sortu gaituela jakinda, argi izan behar dugu zaindu egiten gaituela eta gure ondoan dagoela, eta, aldi berean, mundu honetako kreatzaile egin gaituela. Fedez begiratzen badiogu gure munduari, mundu zoragarria ikusiko dugu; errukiz begiratzen badiogu gure munduari, hark zaintzeko eta hobetzeko gonbita egingo digu. Kristau-fedeak ez gaitu mundutik urruntzen, gure begiak garbitzen ditu, egiara hurbiltzeko.

9.- Eguneroko errealitatearekin konpromisoa hartzea eramaten gaituen transzendentzia

Jainko kreatzailearengana, guztion aita eta ama den Jainkoarengana eramaten gaituen fedeak mundu hau hobetzera eramaten ez bagaitu, Jesusek Ebanjelioan esaten digunari jarraiki, pertsona guztiak maitatzera eramaten ez bagaitu, fede horrek ez du zerikusirik Jesusekin, bera baita transzendentzia hutsa denaren gizakundea edo inkarnazioa.

4.- 2016/2017 IKASTURTEKO GOIBURUA LANTZEKO HELBURUAK

Ondoren, Hezkuntza Elkarte osoarekin lantzeko egokiak iruditu zaizkigun helburuak planteatu ditugu. Helburuak interes-taldean arabera zatitzea saihestu dugu, izan ere, transzendentzian hezteko, aurretik garatutako esparruekin lotutako ESPERIENTZIAK bizitzera eramango gaituen IBILBIDE bat sortu behar dugu:

- 1.- Norberarengan pentsatzeko joera gainditzeko eta besteengan pentsatzen laguntzea. (NI-GU TRANSZENDENTZIA)
- 2.- Gure bizitzaren izaera historikoaz jabetzea: iragana dugu, oraina bizi dugu eta etorkizuna eraikitzen dugu. (ORAINA TRANSZENDITZEA)
- 3.- Gauza materialen eta horien erabilera egokiaren balioa aitortzea, gorputza, burua, emozioak eta espiritua garatzeko. (BALIO MATERIALAK TRANSZENDITZEA)
- 4.- Bizitzaren misterioaren eta heriotzaren ondorengo jarraipenaren ideari irekitzea pertsona. (MUNDU HONETAKO BIZITZA TRANSZENDITZEA)
- 5.- Grina, senak eta emozioak kudeatzen ikastea, gure esperientzia askatasunetik bizitzeko. (IRRIKAK TRANSZENDITZEA)
- 6.- Barnatasunaren (gogoeta, isiltasuna, mirespena...) eta otoitzaren bidez hazteko bideak eskaintzea, azalekotasuna gainditzeko. (HUTSALKERIA TRANSZENDITZEA)



BEGIRA EZAZU HARANTZAGO



7.- Jainkoaren irudi osatugabeak gainditzen laguntzea, Ebanjelioak Jainkoari dagokionez proposatzen digun esperientziara iristeko. (NORBERAK JAINKOARI BURUZ DITUEN IRUDIAK TRANSZENDITZEA)

8.- Konfiantza eta esker ona sentitzera bultzatzea, kreazioari behatuz eta gure ingurua zaintzeko eta hobetzeko konpromisoa hartuz. (KREAZIOA TRANSZENDITZEA)

9.- Kontzientzia kritikoa sortzea, gure munduko kausa handiekin konpromisoa hartzeraren eraman gaitzan, Nazareteko Jesusek egin zuen antzera. (KONPROMISOTIK TRANSZENDITZEA)

10.- Otoitza sustatzea, kristauon Jainkoaren esperientziara iristeko bidea baita. (TRANSZENDENTZIARA IREKITZEA)



BEGIRA EZAZU HARANTZAGO